

Labayru Fundazioa

“Bide barriak” ekitaldia

Bilbon, 2015eko apirilaren 16an

Patxi Bazterrika Galparsoro,

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordearen mintzaldia

Lehendakari jauna,
herri-agintariok,
Labayruko arduradun eta lagunok,
bertaratu zaretenok,
arratsalde on guztioi.

Lehen-lehenik, nola ez, eskerrik asko Labayru Fundazioko arduradun eta lagunoi, gaurko ekitaldian parte hartzeko aukera eman didazuelako. Eta, esker onarekin batera, zorionak! Zorionak eman nahi dizkizuet, bihotz-bihotzez, gaurko ekitaldi honi darion berritze-indarragatik. Euskalgintzan urteak daramatzagunok ondo dakigunez, Labayru Ikastegiak dagoeneko bide luze bezain emankor eta oparoa du urratua euskararen eta euskal kulturaren alde: etnografiaren arloan, bibliografian, helduen euskalduntze eta alfabetatzean, hizkuntzalaritzan, hiztegi-gintzan, folkloean, literaturan, didaktikan... zer arlo ez ote du jorratu Labayru Fundazioak? Ondo merezia duzue, beraz, zorientzea burututako guztiagatik. Baina pozarren zorientzen zaituztet gaur, bereziki, aurrera begira asmo berriak zehazteko erakusten duzuen gogoagatik eta gaitasunagatik.

Zuen ibilbidearen eta egitasmo berrien uztardura sendoa ikusita, Joxean Artzeren poema ezaguna datorkit burura:

“Iturri zaharretik
edaten dut,
ur berria edaten, beti berri den ura
betiko iturri zaharretik.”

Eta horixe da nire ustez erakusten ari zaretena: iturri zaharra eta ur berria, Ikastegia eta Fundazioa. Enbor sendoak sustrai errotuak behar dituen bezala, urak ere iturria behar baitu, alferrik galduko ez bada.

Jaurlaritzan dudan ardura zehatza gogoan, alderdi edo gai bat azpimarratu nahi nuke gaur bereziki: hizkuntzarena.

Entre los diversos ámbitos en los que la Fundación Labayru ha contribuido con sus investigaciones y su labor de divulgación, quisiera hoy destacar su aportación decisiva al conocimiento y puesta en valor del “euskera de Bizkaia” –en expresión de Ander Manterola- y el enriquecimiento que ello ha supuesto al desarrollo del euskera batua, el euskera unificado. Creo que

esta es una buena ocasión para reconocer públicamente la encomiable y continuada labor realizada por Labayru en favor de nuestra lengua.

Euskarak itzelezko biziberritzea izan du azken hamarkada hauetan. Faktore asko izan dira biziberritze hori ahalbidetu dutenak. Bat bada, ordea, berezkoa, hizkuntzari berari dagokiona: batasuna. Oraindik mende erdia bete ez duen euskara batua euskarri ezinbestekoa izan da euskarak hainbat esparru berri eskura ditzan. Euskarak batasuna behar zuen “hizkuntza larreako noranahiko” hizkuntza izango bazen, Lizardiren ametsa egia bihurtuz. Gaur, zorionez, euskara administrazioko hizkuntza da, eskolakoa, unibertsitatekoa, hedabideetako, zientzia eta teknikakoa eta abarretakoa.

Hizkuntza gutxi izango zuen halako barne-garapenik horren denbora gutxian. Euskaltzaindiaren gidaritzak eta gizartearen erantzunak posible egin zuen miraria. Eta bilakaera horretan, giltzarri izan da euskalkien ekarpena jasotzea. Euskara batua ez baitago inola ere euskalkiekin kontrajarrita, ezta gutxiagorik ere: euskara batuaren ur berriak euskalkien iturri zaharretik edaten baitu. Eta eginkizun horretan berebiziko meritua duzue Labayruko kideok. Bizkaiko euskara, “bizkai euskera”, corpusaren aldetik eguneratzeko lan eskerga egin duzue; bizkai euskeraren ekarpena bermatu duzue euskara batuan.

Cuando, en estos momentos, el euskera está siendo lengua de cada vez más ciudadanos y, especialmente, de más y más jóvenes vascos y vascas, permitidme que os anime a seguir contribuyendo a modernizar, enriquecer y fortalecer el euskera como instrumento vivo de comunicación.

Datozen urteetarako euskarari dagokionez dugun erronka nagusia, euskara hizkuntza bizia izatea da: erabiltzailea zaharra nahiz gaztea izan, unibertsitarioa nahiz mekanikaria izan, bizkaitarra nahiz gipuzkoar, arabar, nafar edo iparraldekoa izan... euskara hitzunen behar komunikatiborako tresna zorrotza izatea. Axular zaharrak emandako mezu beti berriak dioen bezala, “dabillan harriari etzaika goroldiorik lotzen”. Eginkizun honetan ere bidelagun bikaina izango da, seguru, Labayru Fundazioa bere langintza berrituan.

Amaitzeko, gogoratu nahi nuke nola jarraitzen duen nire hasierako hitzetara ekarri dizuedan Joxean Artzeren poemak:

Iturri zaharretik
edaten dugu,
ur berria edaten,
hitz bizia aditzen, beti berri den hitza,
betiko hizkuntza zaharretik.
Iturri zaharretik
edaten dugu,
ur berria edaten,
hitz bizia aditzen...

Horregatik, bada, bene-benetan eskerrik asko, zorionak eta bide barri on!